

eskola-jangela eredu berri baten aldeko manifestua



GURE
PLATERA
-GURE
AUKERA

eskola-jangela osasungarriago,
hurbilago, bidezkoago eta
hezitzaileagoaren alde.

2000. urtean Eusko Jaurlaritzaren araudi batek "kudeaketa zuzena" izeneko kudeaketa eredu inposatu zien EAEko ikastetxe publikoetako jangelei.

Catering enpresak hasi ziren ikastetxeak jakiez hornitzen eta poliiki-poliiki sukaldeak desagertzen joan ziren ikastetxeetan.

Hauek izan dira araudi horren eraginetako batzuk:

- jangelaren kudeaketa eta ikasleen elikadura, urrundu egin dira inguruetik eta desagertu egin dira baserritar, arrantzale eta bertako dendekiko erlazio sozial eta ekonomikoak. Galdu egin dira azken finean eskola eta berau txertatzen den komunitatearekiko erlazioak sendoak mantentzeko aukerak.
- hezkuntza ekintzatik deskonektatuta dauden jangelak, ez dutenak aprobetxatzen elikadura curriculumean txertatzeko aukera.

- nutrizio-kalitatea galdu duten jangelak, ez dutenak aposturik egiten garaiko, gertuko eta produkzio agroekologikoko elikagaien alde, jankideen behar nutrizionalei egokitu ordez urrutiko ekoizpenari egokitutako sukalde-teknikak erabiltzen dituztenak.
- gardentasun eskaseko eredu, Lehiaren Euskal Agentziak ipinitako isuna bezalako eskandaluak sortu dituena jangelak kudeatzen dituzten enpresek merkatua banatzen dutelakoan.
- eredu ez parte-hartzailea, eskola-komunitateak ez bait dauka erabaki ahalmenik.

Egoera hau izanik, hainbat eragile lanean gabiltza aspalditik **ESKOLA-JANGELA EREDU BERRI BATEN ALDE**. Ezaugarri hauek izango ditu eredu honek:

jangela hezitzailea, elikadura ikastetxearen hezkuntza-proiektuaren beste atal moduan lantzen duena.

jangela osasuntsua, dieta aberats eta askotarikoarekin, bertan sukaldatutako elikagai freskoekin.

jangela agroekologikoa, menuan erabiltzen diren jakiak teknika agroekologiko eta sostenigarriekin ekoizten direla bermatuz, eta EAEko ekoizpen agroekologikoaren hedapenaren alde eginez.

gertuko sukaldea, bertako eta garaiko produktuak lehenesten dituena, bertako ekoizleekin konfidantzazko loturak sustatuz.

jangela justua, inplikaturik dauden eragile guztien arteko erantzunkidetasuna zaintzen duena, elkarren ezagutza, errespetua, elkartasuna eta ekitatetik.

*manifestu hau sinatzen dugunok bat egiten dugu norabide honetan EAEko eskola-jangelak eraldatzeko helburuarekin eta atxikimendua adierazten diogu **gure platera gure aukera ekimenari honetarako:***

eratu

eskola-jangela eredu berri honen alde egiten duten erakunde eta elkarten ahots bateratu bezala.

sentsibilizatu

gizartea eskola-jangela osasuntsu, agroekologiko, hezitzaile eta justuen inguruan.

txertatu

agenda politiko eta sozialetan eskola-jangela eredu berri baten aldeko diskurtsoak.

parte hartu

modu aktiboan eskola-jangela eredu berri baten garapenerako antolatzen diren espazioetan.



manifiesto por un nuevo modelo de comedor escolar



GURE
PLATERA
-GURE
AUKERA

eskola-jangela osasungarriago,
hurbilago, bidezkoago eta
hezitzailagoaren alde.

En el año 2000 una normativa del Gobierno Vasco impuso a todos los comedores de los centros escolares públicos de la CAPV un único modelo de gestión, denominado "gestión directa" que se

tradujo en el abastecimiento de comida a partir de empresas de catering y en eliminar poco a poco la cocina 'in situ' en los centros escolares públicos vascos.

Ello ha dado lugar, entre otros efectos, a:

- que la gestión del comedor, de la alimentación de los escolares, se haya ido alejando cada vez más del entorno, y los vínculos sociales y económicos con baserritarras, pescadores/as o comercios locales hayan desaparecido, perdiéndose una notable oportunidad de mantener relaciones sólidas entre las escuelas y las comunidades en las que se insertan.
- unos comedores que están desconectados del hecho educativo, que no aprovechan la oportunidad de incorporar la alimentación al curriculum escolar.

- unos comedores que han perdido calidad nutricional, que no apuestan por los alimentos de temporada, de proximidad y de producción agroecológica, con técnicas culinarias adaptadas a la producción alejada y no a las necesidades nutricionales de los comensales.
- un modelo poco transparente, que ha provocado escándalos como la sanción impuesta por la Autoridad Vasca de la Competencia a las empresas que gestionan los comedores escolares por repartirse el mercado.
- un modelo no participativo, en el que la comunidad escolar no tiene poder de decisión.

Ante esta situación, son numerosas las organizaciones sociales y entidades que vienen trabajando desde hace tiempo por un **NUEVO MODELO DE COMEDOR ESCOLAR**, que se caracterice por ser:

un *comedor educativo*, que incluye la alimentación como una parte más del proyecto educativo del centro.

un *comedor sano*, con una dieta rica y variada, con una presencia relevante de alimentos frescos y cocinados in situ.

un *comedor agroecológico*, donde los alimentos que forman parte del menú se han producido con técnicas agroecológicas y sostenibles, y que trabaja por la extensión de la producción agroecológica en Euskadi.

un *comedor cercano*, que consume prioritariamente productos locales, de temporada, y estableciendo vínculos de confianza con el sector productivo local.

un *comedor justo*, que cuida la corresponsabilidad en las relaciones de todos los agentes implicados en el comedor desde el conocimiento mutuo, el respeto, la solidaridad y la equidad.

Quienes suscribimos este manifiesto nos sumamos a este afán de transformar en esta dirección a los comedores escolares de Euskadi, y para ello mostramos nuestra adhesión a la iniciativa gure platera gure aukera, para:

constituirse

como una voz común de las entidades y organizaciones que trabajan por este nuevo modelo de comedor escolar.

sensibilizar

a la sociedad sobre la importancia y los valores de unos comedores escolares más sanos, agroecológicos, educativos y justos.

incorporar

el discurso a favor de un nuevo modelo de comedor escolar en las diferentes agendas políticas y sociales.

participar

activamente en los espacios que se habiliten para el desarrollo de un nuevo modelo de comedor escolar

Mediante esta firma nos comprometemos a ser parte de la iniciativa Gure Platera Gure Aukera.

NOMBRE

x

ENTIDAD

x

FIRMA

x